

# BIZIKLIK!

## *Funtsezko jarduerak*

Zein dira egin behar ditugun gauzarik garrantzitsuenak gure proiektuak funtziona dezan?

- **Ekoizpena.** Ekoizpena gure funtsezko jarduera da, manufaktura-enpresa bat baikara. Produktuak sortzeko fase desberdinetan banatuko dugu fabrikazioa, kate-lana egiteko. Era horretan, denbora eta dirua aurreztuko ditugu, eta prozesua azkartu egingo, ahalik eta etekin handiena ateratzeko kostuak murriztuz.
- **Arazoak konpontzea.** Hala ere, sortutako arazoak konpontzea garrantzitsua da eta zorionez, enpresako kide guztiok arazoei aurre egiteko gaitasun handia dugu. Onartzen dugu akatsak egon daitezkeela, enpresa bat hasieratik sortzea ez delako erraza. Horregatik, arazo ekonomikoari aurre egiteko planifikazio bat egingo dugu, finantzetan espezializatutako zenbait langileren laguntzaz. Bestalde, mantenimenduko langileak izango ditugu ekoizpen-prozesuan akatsik balego lehen bai lehen konpon ditzaten.
- **Plataforma edo sarekoak.** Gaur egungo gizartean ezinbestekoa iruditzen zaigu sare sozialak erabiltzea enpresa bateko publizitatea egiteko, enpresa jendearengana helarazteko tresna oso erabilgarriak baitira. Horregatik, *marketing* enpresaren laguntzarekin, kontuak sortuko ditugu eguneko sare sozial ospetsuetan, eta tresna asko eskainiko dizkiegu gure jarraitzaileei gurekin komunikatzeko aukera izan dezaten. Bestalde, webgune bat sortuko dugu. Bertan enpresaren inguruko informazioa jarriko dugu. Gainera, eskaerak on-line egiteko aukera ere egongo da. Hala ere, inork zalantzak izanez gero edo eskaeraren inguruan zerbait negoziatu nahi izanez gero, enpresaren telefonoa izango du Biziklik!-eko webgunean eta gure sare sozial guztietan.

